

2016ko abenduak 28

Laster gogoan izango dugu orain 80 urte Mola Jenerala buru zuen altxatutako armada faxistak, hegazkin faxista italiarrek lagundurik, Durango txikitzea erabaki zuela. Faxistek xehetasunez aurreikusi eta gauzatu zuten ekintza genozida, basati eta anker hau. Ehunka hildako eta zauritu eragin, hiria suntsitu eta milaka durangar ikaratu eta herritik ihesean jarri zituzten bonbardaketa eta metrailaketa faxistek. 1937ko martxoaren 31an goizean hasi ziren, baina arratsaldez ere jarraitu zuten, eta apirilaren 2an eta 4ean ere bai. 80 urte pasatuko dira eta inork ez du barkamenik eskatu egindako genozidioagatik, ezta egindako txikizioagatik. Inork ez du erantzukizun politikorik onartu.

Ekintza gupidagabe, anker eta bihozgabeak gertatu eta ondorengo 80 urteetan korapilatsua, neketsua eta arazotsua izan da EGIA ezagutzea. Bonbardaketa gupidagabeen hainbat xehetasun argitzeko daude oraindik ere. Eta horrela izan da, batez ere, diktadura faxistak gertatutakoa errugabetu eta isildu nahi izan duelako, baina, baita ere, azkeneko 40 urteetako denon erantzukizun ezagatik. Herritarren ekimenari zor zaio gertatutakoa ezagutzea, EGIA azalaraztea, bonbardaketak jasan zituztenen lekukotza-ondareari eta hainbat herri-elkarteren lan nekaezinari esker. Honen haritik, eskerrak eman behar zaizkie Gerediaga Elkarteari, Barbarori, Kriskitin Dantza Taldeari, Durango 1936 Kultur Elkarteari eta isilean jardun duten hainbat herritarri.

Egunokin, EGIA ezagutarazteko, JUSTIZIA egiteko eta ORDAINA aldarrikatzeko asmoz bi herri-ekimen ari dira oihartzun handia eragiten, altxamendu faxistaren bihozgabekeria eta ankerkeria jasan zuten herritarrei zor zaiena adierazteko, behingoz.

Batetik, Argentinako Buenos Aireseko 1. Epaitegiko 4591/10 auzi-jartzea da, Argentinako kereila izenez ezagunagoa dena, auzi-jartze honek bidea zabaltzen baitu altxamendu faxistak eta ondorengo diktadurak eragindako EGIA jakinarazteko, JUSTIZIA egiteko eta kaltetuekiko ORDAINA gauzatzeko.

Bestetik, Catalunyako Altramemoria Elkarreak Bartzelonako Epaitegian jarritako auzi-jartzea da, Bartzelonak 1937an eta 1939an jasandako bonbardaketa latz eta ankerrak ikertzeko eta erantzuleak ezagutarazteko eta auzipetzeko bidea zabaltzen baitu, auzi-jartzea onartua izanik. Bartzelonako bonbardaketek badituzte antzekotasunak Durangok jasan zituenekin, egileak hegazkin faxista italiarrak izan baitziren bietan.

Hori guztiagatik, zera onartu dugu Durangoko Bozeramaleen Batzordean:

1. Atxikitzea Buenos Aireseko 1. Epaitegian jarritako auzi-jartzeari, bonbardaketa faxistek eragindako hildakoak, zaurituak eta kalteak salatzeko.
2. Erraztea Argentinako auzi-jartzeari atxikitu nahi diren frankismoaren kaltetu durangarrei izapidea bideratzea, horretarako informazio eta aholku-bulegoa zabaldurik.
3. Laguntzea diruz eta lege-aholkularitza emanaz Durango 1936 Kultur Elkarrea, honek dagokion epaitegian bonbardaketen erantzuleen aurka jarriko duen auzi-jartzearen tramite guztietan.

4. Elkarlanean jardutea dezala Durango 1936 Kultur Elkartearekin aipaturiko auzi-jartzerako beharrezko diren lekukotasunak jasotzen eta bideratzen.
5. Batzorde berezia sortzea, Durangoko Udalaren babesean, datorren 80. urteurrenean Durangok jasan zituen bonbardaketak oroitarazteko antolatuko diren ekimen eta ekintza guztiak koordinatuko dituena, hori bai, faxismoaren kaltetuak edo errepresaliatuak izan ziren guztien ideologiak errespetatuz.